

Saturazioa



ENEKO GORRI GANTIER
EUSKARA TEKNIKARIA

Bekatu bat aitortu behar dut hemen. Duela lau urte, ohitura berri bat sarrarazi nuen nire bizian: igande gauean, kaka kanoi baten antzera "informazio" jarraikia hedatzen duen CNews telebista kate ultraeskuindarra begiratzeko hasi nintzen. Hasieran ordu erdi bat astero zena, noiztenkako zapping kaltekorra bilakatu da. Badakit: ez da biziki ohargarria eta ahalke pixka batekin salatzen dut, baina Vincent Bolloré miliardunaren kate horrek xoraturik atxikitzen nau, okaztatzen nauen bezainbat.

CNews, beste hedabide asko bezala, eguneroko gorrotoa sortzeko fabrika da! *Talk show*-ak eta albistegiak begiratzeko hastean, ulertzen hasi nintzen nondik ateratzen ziren lankide, auzo edo soberra ezagunak ez zaizkidan pertsona batzuek errandakoak. CNews bezalako hedabideek badutelako indar bikoitz hori: agenda mediatiko eta sozialean gaiak inposatzea, eta ondorioz, "kronikarien" zeingehiagoka berbalarekin onargarriaren muga beti urrunago kokatzea. Eta berdin dio espazio mediatikoa *fake news*-ez saturatzen badute: "Bota alimaleko gezurra! Gezuratzeko badute ere, beti zerbait geldituko da" aipamena da *spin*

Saturazio eta giro okaztagarri horrek paralizatzen gaitu. Badugu diskurtso altxagarri eta ausarten beharra; badugu ere komunio funtzioa beteko duten mobilizazioen premia

doctors-en doktrina berria. Baina ez uste izan hori guzia kasualitatea denik. Gerla kultural baten baitan ongi pentsatu, antolatuta eta diruztatutako zibilizazio bataila bat ari da gertatzen!

Estatu Batuetan Steve Bannon izan den bezala, frantses estatuan Pierre-Édouard

Stérin ari da hori guzia orkestratzen. Teorizatu duten estrategiaren arabera, zonalde mediatikoa urez estali behar da, "hedabideak egunean gai batez bakarrik emozionatzen ahal direla" argudiatuta. Horrela dute gai txikiek protagonismo handia eta sakoneko gaiak doi-doia ageri.

Estrategia horren hedatzaile ezin hobeak dira, nolaz ez, Bolloré sareko hedabideak. Baina beste hedabideak horren segitzeko behartuak sentitzen balira bezala sartzen dira fandango horretan dantzari. Eskuin muturrak du tempoa markatzen. Ekainean *dry January* egin nuen bezala, martxoan frantses hedabideak kontsultatzeari utzi nion. Desintoxikatzeke, telebista eta irratia itzali. Saturazioraino utzi ninduten Trump, Musk, Gaza, Marine Le Pen, austeritate plana, autoritarismoaren gorakada, gutxiengoaren kontrako erasoa... Benetan ohartzen ote gara aktualitateak gure osasun mentalean duen eraginaz?

Saturazio eta giro okaztagarri horrek paralizatzen gaitu. Badugu diskurtso altxagarri eta ausarten beharra; badugu ere komunio funtzioa beteko duten mobilizazio berrien premia. Udaberria dator: alternatibari ideki diezaiozun bidea. ●

44.
LIZARDI
SARIA

• Euskarazko gazte literatura sustatzeko.

• Lanak aurkezteko epea: 2025eko uztailaren 14a.

Informazio gehiago: www.zarautz.eus



ZARAUZKO UDALA



LIZARDI SARIA